


Apirilaren 7a, Osasunaren Munduko Eguna

Osasunaren Munduko Eguna 2021eko apirilaren 7an dela eta, Osasunaren Munduko Erakundeak (OME) kanpaina berri bat aurkeztu du COVID-19ren pandemiak utzi dituen eta agerian uzten jarraitzen duen desberdintasun sakonez ohartarazteko. Horrela, OMEk arreta jarri nahi du pertsona batzuek bizitza osasuntsuagoa izan dezaketela eta osasun-zerbitzuetarako sarbide hobeak izan dezaketela, jaio, hazi, bizi, lan egin eta zahartzen diren baldintzengatik.

Gazteen Euskal Behatokiak 2020ko azaroaren eta abenduaren bitartean online egindako inkesta batean 15-29 urteko Euskadiko gazteen % 14,7k osasuna aipatzen zuten (berea edo ingurukoena), Covid-19 pandemiaren eragin handiena jasan zuen eremu gisa.

Covid19k sortutako egoerak Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen bizitzen zein arlotan izan duen eraginik handiena* (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, 2020
* Pertsona bakoitzak bierantzun eman zitzakeen

Gainera, Euskadiko 15-29 urteko pertsonen osasun-egoera aztertzea errazteko, Gazteen Euskal Behatokiak 16 adierazle ditu bere webguneko on-line adierazleen sisteman, osasunari eta hilkortasunari buruzko atalean.

Horiek guztiek sexuaren arabera bereizitako datuak dituzte.

- ✓ Osasun txarraren prebalentzia
- ✓ Antsietate- eta depresio-arazoaren prebalentzia
- ✓ Obesitate-tasa

- ✓ Jarduera fisikoa
- ✓ Tabako-kontsumoa
- ✓ Kalamuaren kontsumoa
- ✓ Alkoholaren eta arriskuaren kontsumoa asteburuetan
- ✓ Droga-mendekotasunengatiko tratamenduen hasiera (tasak adin-talde bereko 1.000 pertsonako)
- ✓ Arriskuko sexu-harremanak
- ✓ 15-17 urteko nesken haurdunaldi nerabearen tasa (tasak adin-talde bereko 1.000 pertsonako)
- ✓ 15-29 urteko nesken haurdunaldia borondatez etetea (tasak adin-talde bereko 1.000 pertsonako)
- ✓ GIB bidezko infekzio berriak (tasak adin-talde bereko 10.000 pertsonako)
- ✓ Gazteen heriotzak (balio absolutuak)
- ✓ Gazteen heriotzak (tasak adin-talde bereko 100.000 pertsonako)
- ✓ Zirkulazio-istripuek eragindako heriotzak 15-29 urteko gazteen artean (tasak adin-talde bereko 100.000 pertsonako)
- ✓ Heriotzak 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, bere buruaz beste egiteagatik (tasak adin-talde bereko 100.000 pertsonako)

Gazteen Euskal Behatokiaren on-line Adierazleen Sistemari sar zaitezke [esteka](#) honen bidez.